




DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
DSS2016.EU



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA



Hizkuntza
Eskubideak
Bermatzeko
Protokoloa



DONOSTIAKO PROTOKOLOA

Eskuratu doako sarrera abenduaren 11 baino lehen
www.protokoloa.eus / 943 591 200

Aurkezpen
ekitaldia

Abenduak 17, 11:30
Kursaal Jauregia (Donostia)

Zer da Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa?

Hizkuntza berdintasunaren aldeko eta hizkuntza gutxituen garapena bermatzeko dokumentua da Protokoloa. Europa osoko gizarte eragileen proposamenekin eta Batzorde Zientifiko baten aholkuekin osatu da. Hizkuntza gutxituen aldeko mugimenduen ahalduntze ariketa erraldoiaren ondorio da, beraz, **Donostiako Protokoloa**. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatuak egon daitezten hartu beharreko neurriak jasotzen ditu. 185 neurri, zehazki.

1996an Bartzelonan **Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala** plazaratu zen; 20 urte beranduago, Donostian, eskubide horiek bermatuak izan daitezten tresna eraginkorra aurkeztuko da.

Kursaaleko aurkezpen ekitaldia

Abenduaren 17an Donostian egingo den ekitaldia abiapuntu bat da. Bi urteko lanketa kolektiboaren ondoren, Protokoloa gizarteari aurkeztuko zaio eta hurrengo urteetan Europa osoan egingo duen bideari hasiera emango zaio. Hizkuntza komunitate bakoitzeko talde eta eragileen esku geratuko da, beren eskubideen berme bezala Protokoloko neurriak betearaztea.

Protokoloa nondik datorren eta nora doan azalduko da ekitaldi eder eta zaindu batean; hizkuntza gutxituen aldeko herritarren batasuna aldarrikatuko da eta Europa mailako erreferentziazko dokumentuaren jaiotza biziko dugu.

Hizkuntza berdintasunaren aldeko herritar oro gonbidatua dago; eskatu doako sarrerak **www.protokoloa.eus** webgunean eta bete dezagun Kursaala une historiko honetan.